

AURKIBIDEA

1.- AURREKARIAK

2.- PLAN OROKORREKO DOKUMENTUAREN ETA HASIERA BATEAN ONARTUTAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO DOKUMENTUAREN ARTEKO ALDEAK

3.- GORAGOKO LERRUNEKO PLANEN ZEHAZTAPENEN LABURPENA

4.- PLAN OROKORREKO PROPOSAMENEN INGURUMEN AZTERKETA

4.1. PLAN OROKORREKO JARDUNAK

4.2. INPAKTU NAGUSIEN BALORAZIO OROKORRA

4.3. AZKENEAN HAUTATUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

5.- INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

5.1. LURZORU URBANIZAEZINA KALIFIKATZEKO PROPOSAMENAREN ONDORIOZKO INPAKTUAK

5.2. ASTIERREKA SEKTORIZATU GABEKO LURZORU URBANIZAGARRI GISA MUGATZEAREN ONDORIOZKO INPAKTUAK

5.3. ASTAZUBI ETA ERROTAZAR SEKTORIZATU GABEKO LURZORU URBANIZAGARRI GISA MUGATZEAREN ONDORIOZKO INPAKTUAK

5.4. ALDAPETA BERRIRO KALIFIKATZEAREN ONDORIOZKO INPAKTUAK

5.5. TEJERIAKO SEKTOREA EZ ZABALTZEAREN ONDORIOZKO INPAKTUAK

5.6. INPAKTUEN KALIFIKAZIOA

6.- NEURRI BABESLEAK, ZUZENTZAILEAK ETA KONPENTSATZAILEAK

6.1. ZHAPOREN HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK EGOKITZEKO PROPOSAMENA

6.2. PROPOSAMENEN INGURUMEN KOSTUA SAIHESTEKO EDO MURRIZTEKO NEURRIAK

7.- ZHAPO-REN ERAGINAK IKUSKATZEKO PROGRAMA

7.1. KONTROL HELBURUEN DEFINIZIOA

7.2. JARRAIPENAREN MENDE DAUDEN SISTEMEN, ALDERDIEN EDO ALDAEREN IDENTIFIKAZIOA

7.3. ADIERAZLEEN JARRAIPENERAKO BEHARREZKO DATU KUANTITATIBOAK ETA KUALITATIBOAK FINKATZEA

7.4. PARAMETRO KUANTIFIKATZAILEETARAKO ERREFERENTZIAZKO EDO MUGAKO MAILAK EZARTZEA

7.5. BETETZE MAILA IKUSKATZEKO, ZAINTEKO ETA INFORMATZEKO PROGRAMEN DISEINUA

7.6. PLANGINTZA PROZESUAREN ONDORENGO FASEETAN EDO GARAPEN DOKUMENTUETAKO INGURUMEN INPAKTUKO EBALUAZIOETAN XEHETASUNEZ AZTERTU BEHAR DIREN ALDERDIAK

8.- DOKUMENTAZIO GRAFIKO ZUZENDUA

1.- AURREKARIAK

Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioari buruzko Azterlana 2004ko uztailean txertatu zitzaion Zarauzko Arau Subsidiarioak berraztertze proiektuari –Aurrerapen fasean hain zuzen ere–, 183/2003 Dekretuak zehazten duen bezalaxe. Bi dokumentuak uztailaren 12an igorri zitzaizkion Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapen Iraunkorrerako Departamentuari, ingurumen-inpaktuaren aurretiazko txostena egin zezan. Ingurumen-inpaktuari buruzko aurretiazko txostena 2005eko maiatzaren 16an jaulki zen, Garapen Iraunkorrerako Departamentuko foru diputatuaren Agindu bidez.

Ingurumen-inpaktuari buruzko aurretiazko txostenaren zehaztapenak kontuan izanik idatzi zen hasierako onespenerako dokumentua, 2005eko uztailaren 27an Udal Osoko Bilkurak onartu zuena. 2005eko abuztuan berriro idatzi zen ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlana, aurretiazko txosten horretan ezarritako zehaztapenen arabera eta hasiera batean onartutako arau subsidiarioen dokumentu berri horren arabera aldatutakoa. Hori guztia jendaurrean izan zen 3 hilabetez (2005eko urritik 2006ko urtarrilera bitartean).

Ondoren, 2006ko irailaren 27an egindako Udalaren Osoko Bilkurak Arau Subsidiarioen dokumentuaren edukiak eta zehaztapenak 2/2006 Legera egokitzea erabaki zuen, bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoan oinarrituta –2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa–. Horrez gain, bilkura horretan hasierako onespeko dokumentuari jendaurrean izan zen aldian aurkeztutako alegazioei erantzutea erabaki zen, baita plangintza orokorra berraztertze espedienteari jarraipena emateko hiri-antolamenduaren plan orokorreko dokumentua lantzea ere.

Arauen hasierako onespeneko dokumentuak eta dagokion ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlana ingurumen-inpaktuaren aurretiazko txostenaren zehaztapenen arabera idatzi zirenez gero, eta egindako proposamenei dagokienez aldaketa esanguratsurik gertatu ez denez gero, Plan Orokorreko dokumenturako nahikoa da azterlan horri egin beharreko eranskin batekin. Eranskin horretan bi horien arteko aldeak aztertu beharko dira, eta, hala badagokio, aldaketa horiek eragindako inpaktuak zehaztuko dira.

Bestalde, Planaren dokumentazioaren barruan, “Ingurumen Inpaktuari buruzko Aurretiazko Txostena Betetzearen Memoria Justifikatzailea” idatzi da. Memoria justifikatzaile horretan, ingurumen-inpaktuaren aurretiazko txostenean biltzen diren ingurumen-zehaztapenak laburbiltzen dira, eta, horrez gain, Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioari buruzko Azterlanean zein Planaren dokumentuan zehaztapen horietara egokitzeko egindako aldaketak deskribatzen dira. Gainera, Planaren I. Eranskinean ingurumen-inpaktuaren aurretiazko txostena jaso da oso-osorik.

2006ko abenduaren 11ko Alkatetzaren erabaki bidez onartu zen herritarrek Plan Orokorrean parte hartzeko programa abian jartzea –jendaurrean egongo den aldietan oinarrituta–, foroak egitea, eta Udal Plangintzako Aholkularitza Kontseilua sortzea. Horrela dokumentua idazteko lanetan herritarren parte-hartzea sustatzen da.

2.- PLAN OROKORREKO DOKUMENTUAREN ETA HASIERA BATEAN ONARTUTAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO DOKUMENTUAREN ARTEKO ALDEAK

Plan Orokorrak lurraldearen errealitate fisikoarekin bat datorren garapenaren aldeko apustua egiten du, eta 2006ko irailean hasiera batean onartutako dokumentuaren proposamenetako batzuk berriro aztertu ditu; izatez, lehentasunekotzat jo du finkatu gabeko lurzoruetan jardunak planteatu aurretik hiri-bilbea birmoldatzea.

2005eko uztailean hasiera batean onartu zen Arau Subsidiarioak berraztertzeke dokumentua erreferentziatzen hartuta, hauek dira berrikuntzarik nabarmenenak:

* Edozein motatako babesen mende dauden etxebizitzaren premia aztertu da, 2/2006 Lege berrira egokitzeko. Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrak guztira 2.442 etxebizitza berri aurreikusten ditu, hiri-lurzoruan garatu beharreko 6 jardunetan banatuta (Aldapeta, Zalbide-Zaharra, Salberdin, Kortazar, Inurritza eta Hegoalde). Horietatik % 51,93 babes publikoaren mende egongo da, eta, hala, legea betetzen dela bermatuko da.

* Astierreka (lehen Asti) sektoretan gabeko lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu da. Horrela, dentsitate handiko bizitegi arloko esku-hartze estrategiko bat garatu ahal izango da eta etxebizitza babestuko sustapen publikoa gauzatu ahal izango da, baita ekipamenduetarako eta espazio libreetarako lurzoruak sortu ere. Esparru hori sektoretako bada, etxebizitza babestuko premia justifikatuko duen azterlana landuko da, baina, hala badagokio, Planaren indarraldiko bigarren laurtekoetik aurrera ekingo zaio. Hasiera batean onartutako dokumentuan bizitegi arloko lurzoru urbanizagarri gisa jasotzen zen, baina sektoretatutaz hartzen zen.

* Astazubi eta Errotazar sektoretan gabeko lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu dira, lehenengoan Abendaño eta Errotaberriko industria-zonak zabaldu ahal izateko, eta bigarrenengoan hilerriaren eta La Salle ikastetxearen inguruan ekipamenduak eta espazio libreak ezartzeko. Horrez gain, udalerriko lurzoru-erreserbatzen jo dira biak. Aurreko kasuan bezalaxe, esparru hori sektoretako bada, industria-lurzoruko premia justifikatuko duen azterlana landuko da; nolahi ere, eta hala badagokio, Planaren indarraldiko bigarren laurtekoetik aurrera ekingo zaio. Aurreko dokumentuan urbanizaezin gisa agertzen ziren. Izatez, Astazubi (Munantxo) etorkizunean industria-jarduerak ezarri ahal izateko udalerriko lurzoru-erreserba gisa jasotzen zen; Errotazar sektorea, aldiz, ingurumen-hobekuntza kategoriaren barruan (leheneratu beharreko eremu degradatuak) eta nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko eremuen kategoriaren barruan sartzen zen.

* Aldapetako ekipamendu-lursailak berriro kalifikatu dira, eta babes publikoko erregimenetako baten mende dagoen bizitegi-eremu gisa kalifikatu dira. Bertan antzinako Santa Ana ikastetxea kokatzen da.

* Aurreko Arau Subsidiarioetako Eguzki Izarra zonako lurzoruak eta Salvatore Mitxelena ikastolako lurzoruak berrantolatu dira.

* Ez da Tejeriako pabilioiaren inguruan industria-lurzoruak zabaldu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuaren txostenak justifikatuta. Aurreko arauetako (1988) hiri-lurzoruaren mugapenari eutsi zaio, eta N-634 errepidearen saihesbidearen proiektua behin betiko onartzearen mende dago haren antolamendu xehatua.

* ZHAPOk lurzoru urbanizaezinari dagokionez dituen helburuak ez dira aldatu, nahiz eta antolamendu kategoriak aldatzen diren –ingurumen-hobekuntzakoa ezabatu da–. Baso Babeslearen kategorian sartuko dira ekosistemen hobekuntzako eremutat eta leheneratu beharreko eremu degradatutzat jotzen ziren esparru guztiak. Aurreko dokumentuan eremu horietarako ezarritakora egokituko da erabileren eta jardueren erregulazioa. Hori dela eta, aditzera eman dezakegu kategoriaren izena aldatzen bada ere, ez dela kontserbazioari irizpidea eta helburua aldatzen.

* Lurzoru urbanizaezinean udalerriko lurzoru-erreserbaren kategoria desagertzen da, eta hala mugatutako zona (Munantxo) sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarri bihurtu da, azalera txikiagoarekin bada ere.

* Interes naturalistikoko eremuetako baldintzatzaile gainjarri gisa gaineratu da Inurritza zonarako Ingurune Hezeak babesteko eta antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planaren antolamendu-esparrua. Era berean, Urola-Kostako Lurraldearen Zatiko Planeko interes hidrologikoko eremuak barne hartu dira (Lurpeko urak. Akuiferoen babesak).

* Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuak jaulkitako ingurumen-inpaktuaren aurretiazko txostenaren iritziak eta ingurumen-inpaktuaren azterlana hartu dira aintzat. Plan Orokorreko dokumentazioari gaineratu zaio alderdi horiek betetzearen memoria justifikatzailea.

3.- GORAGOKO LERRUNeko PLANEN ZEHAZTAPENEN LABURPENA

Plan Orokorren dokumentua goragoko lerruneko lurralde-planen irizpideetara eta zehaztapenetara egokitzen da, oro har. Ildo horretan honakoa nabarmendu behar da:

- Lurzoru urbanizaezineko kalifikazioa nahiz erabileren eta jardueren erregulazioa bat dator Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan ezarritako kategoriekin eta zehaztapenekin.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Espazio Naturalen Sarean barne hartzen diren espazioak (Pagoetako Parke Naturala eta Inurritzako Biotopoa) Babes Bereziko kategorietan sartu dira –Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek eta Lurraldearen Zatiko Planak finkatzen duten moduan–, dagozkien antolamendu-planen mugapenekin. Interes Naturalistikoko Eremuen baldintzatzaile gainjarritzat jo dira Garate-Santa Barbara Garrantzi Komunitarioko Lekua, Pagoetako eta Inurritzako babeseko inguruko zonak, eta Inguru Hezeak babesteko eta antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planaren esparrua.
- Halaber, landaredi naturaleko orban nagusiak (hariztiak eta Quercus suber espezieko enklabeak) Babes Bereziko kategorian barne hartu dira.
- Nekazaritza eta Basoak antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planeko balio estrategiko handiko lurzoruak eta Lurraldearen Arloko Planeko nekazaritza-intereseko eremuak, berriz, nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko kategorian sartu dira, eta haien erregulazioa bat dator bi dokumentu horiekin.
- Ildo horretan, Lur Gaineko Uren Babesa kategoria mugatzen da, eta kategoria horren barruan udalerria zeharkatzen duten ibaien eta erreken ibilguak eta ertzak sartzen dira, baita horien babes-eremuak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planean jasotzen den bezalaxe. Gainera, urpean gera daitezkeen zonak baldintzatzaile gainjarritzat agertzen dira.
- Lurraldearen Zatiko Planeko eta Itsasertza antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planeko itsasertzeko intereseko eremuak ZHAPOren Babes Bereziko kategorian sartzen dira.

- Lurraldearen Zatiko Planeko interes hidrologikoko eremuak (Lurpeko urak. Akuiferoen babesa) akuiferoen urrakortasuneko baldintzatzaile gainjarriztat sartzen dira, dokumentu horrek ezartzen duen moduan.
- Azpiegiturei buruzko Lurraldearen Zatiko Planeko zehaztapenak orokorrean jasotzen dira (saihesbidea, N-634 errepidearen trafikoa arintzea, eta bidegorrien eta oinezkoentzako pasealekuen sarea).
- Hirigune historikoari, Salberdin eta Hegoaldeko hiri-birsorkuntzari eta Salbide birgaitzeari dagozkion Lurraldearen Zatiko Planeko aurreikuspenak biltzen ditu.
- Astierreka eta Astazubi sektoreak bizitegi-garapenetarako eta industria-garapenetarako, hurrenez hurren, aukera ematen duten sektoretzat jotzen dituzten Lurraldearen Zatiko Planeko aurreikuspenak biltzen ditu.
- Bestalde, baztertu egin da Tejeria pabilioiaren inguruan industria-lurzorua zabaltzeko aukera –Lurraldearen Zatiko Planak ez zuen horrelakorik aurreikusten–.
- Kultura-ekipamendu handia aurreikusten da Santa Klara komentuaurrean, Lurraldearen Zatiko Planaren ildotik.

4.- PLAN OROKORREKO PROPOSAMENEN INGURUMEN AZTERKETA

4.1. PLAN OROKORREKO JARDUNAK

2006ko iraileko hasierako onespeneko dokumentuari dagokion ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanean aztertu ez ziren ZHAPOn proposatutako jardunetatik honakoak aztertzen dira honako eranskin honetan:

- Lurzoru urbanizaezina kalifikatzeko proposamenaren, eta erabileren erregulazioaren, aldaketa.
- Astierreka eremua bizitegi-erabilerarako sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarritzat aintzat hartzea.
- Astazubi eta Errotaberri eremuak, berriz, industria-zonak zabaltzeko ahal izateko eta ekipamendu eta espazio libreak garatzeko sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarritzat aintzat hartzea.
- Aldapetako ekipamendu-lursailak bizitegi-erabilerarako birkalifikatzea.
- Tejeriako industria-lurzorua ez zabaltzea.

4.1.1. Lurzoru urbanizaezina kalifikatzeko proposameneko aldaketa

Aurreko 2. puntuan aipatu den bezalaxe, ZHAPOk lurralde-antolamenduko tresna gisa dituen helburuak ez dira aldatu hasierako dokumentutik. Ingurumenaren eta bertan gara daitezkeen jardueren arteko oreka lortzea da helburua. Bertako landarediko enklabeak eta gaur egun degradatuta dauden baina lehenera daitezkeen eremuak kontserbatzeko eta leheneratzeko jardunak sustatuko dira, udalerririk kalitate handiagoko ingurunea izan dezan, ingurumenaren ikuspuntutik.

Kalifikazioko hasierako proposamenetik honako aldaketak egin dira:

- Ingurumen-hobekuntzako kategoria desagertu da, eta zona horiek Baso Babeslearen kategorian sartzen dira.
- Udalerriko lurzoru-erreserbaren kategoria desagertu da.

- Babes bereziaren kategorian (EP3) *Quercus suber* espezieko hainbat enklabe sartu dira, espezie horren kontserbazioa bermatzearren –izatez, Arriskuan dauden Espezieen Euskal Zerrendan interes bereziko espezieztat jotzen da–.
- Interes Naturalistikoko Eremuetako baldintzatzaile gainjarri gisa gaineratu da Inurritza zonari dagokion Ingurune Hezeak babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren antolamendu-esparrua.
- Kategoría guztien mugapena berraztertu da, lurraldearen errealitatera moldatzeko eta 2005ean landutako landaredi-mapera egokitzeko.
- Urola-Kostako Lurraldearen Zatiko Planeko interes hidrologikoko eremuak (Lurpeko urak. Akuiferoen babes), nekazaritza-intereseko eremuak eta itsasertzeko intereseko eremuak barne hartzen dira; lehenengoak baldintzatzaile gainjarri gisa eta azken biak nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko kategorian eta babes bereziko kategorian, hurrenez hurren.

Horrela, lurzoru urbanizaezina honako kategorietan eta azpi-kategorietan banatuta dago:

- ❖ Babes bereziko eremuak (EP)
 - Inurritza eremuko biotopo babestua (EP1)
 - Pagoetako Parke Naturala (EP2)
 - Balio naturaleko beste enklabe batzuk (EP3)
- ❖ Baso-eremuak (F)
 - Baso babeslea (FP)
 - Baso-erabilera intentsiboa (FI)
- ❖ Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko eremua (AG)
- ❖ Lur gaineko urak babesteko eremuak (S)
- ❖ Baldintzatzaile gainjarriak
 - Akuiferoak poluitzeko arriskuan diren eremuak
 - Urpean gera daitezkeen eremuak
 - Higa daitezkeen edo higatzeko arriskua duten eremuak
 - Interes naturalistikoko eremuak

4.1.2. Astierreka sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarritzat hartzea

Sektore hau bizitegi arloko lurzoru urbanizagarri gisa agertzen zen eta sektorizatutzat jotzen zen (Plan Partzial bidez garatu beharreko Asti sektorea, non 950 etxebizitza aurreikusten zen). Planak sektore horren garapena berriro planteatu du, eta sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzea proposatzen du orain. Nahiago izan da Salberdingo eta Hegoaldeko hirigintza-kudeaketa nola garatzen den itxoa, eta lurzoru horiek berehala garatu beharreko inolako sektoretan ez barne hartzea. Astiko sektoreari dagokion azalera da.

Dentsitate handiko bizitegi arloko esku-hartze estrategiko bat garatu ahal izateko eta etxebizitza babestuko sustapen publikoa gauzatzeko (Lurraldearen Zatiko Planaren arabera) eremu egokia dela ulertu da. Gainera, ekipamenduetarako eta espazio libreetarako lurzorua sortzeko aukera emango duen udal-erreserba egokitzen jo da. Dagokion hirigintza-fitxan ezartzen denez, esparru hori sektorizatuko bada, etxebizitza babestuko premia justifikatuko duen azterlana landuko da, baina, hala badagokio, Planaren indarraldiko bigarren laurtekoetik aurrera ekingo zaio. ZHAPOren iritziz, aukera hori bat dator ingurumen-inpaktuaren aurretiazko txostenean biltzen diren hiri-birmoldaketako esparruei lehentasuna emateari buruzko gomendioekin.

Edonola ere, sektorizazioari ekin bitartean, esparru horretan lehentasunez aplikatzekoa izango da Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aurreikusten den araudia (uztailaren 27ko 160/2004 Dekretua), betiere Plan horretan mugatutako esparruan.

Lurraldearen Arloko Planean sartzen ez den esparruaren gainerakoan, berriz, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko eremuko (AG) lurzoru urbanizaezinaren kategoriarako aurreikusitako erabileren erregimena izango da aplikatzekoa; nolana ere, espresuki debekatzen da beste baserri batzuk eraikitzea, aurretik dauden baserrien azalera eraikia areagotzea eta abeletxeak edo ukuiluratze intentsiboko instalazioak eraikitzea.

4.1.3. Astazubi eta Errotazar sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarritzat hartzea

Astazubi sektorea.- Bat dator lehendik lurzoru urbanizaezinaren barruan Udalerriko Lurzoru Erreserba gisa mugatutako zonarekin; nolana ere, haren azalera 66.431 m²-ra murriztu da. Abendaño eta Errotaberri industria-zonen balizko zabaltze gisa planteatzen da (Lurraldearen Zatiko Planarekin bat eginik), baita ekipamenduetarako eta espazio libreetarako lurzoru lortzeko aukera gisa ere. Aurreko kasuan bezalaxe, esparru hori sektorizatuko bada, industria-lurzoruko premia justifikatuko duen azterlana landuko da; nolana ere, eta hala badagokio, Planaren indarraldiko bigarren laurtekitik aurrera ekingo zaio. ZHAPOn ere hartzen da aintzat aukera hori, bat baitator ingurumen-inpaktuaren aurretiazko txostenean biltzen diren hiri-birmoldaketako esparruei lehentasuna emateari buruzko gomendioekin.

Edonola ere, sektorizazioari ekin bitartean, esparru horretan aplikatzekoa izango da nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko eremuko (AG) lurzoru urbanizaezinaren kategoriarako aurreikusitako erabileren erregimena; nolana ere, espresuki debekatzen da beste baserri batzuk eraikitzea, aurretik dauden baserrien azalera eraikia areagotzea eta abeletxeak edo ukuiluratze intentsiboko instalazioak eraikitzea. Alderdi hori ez da aurreko dokumentuarekin aldatzen.

Errotazar sektorea.- Sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarriko beste sektore bat mugatu da; 59.006 m²-ko azalera izango du, eta Abendañoeko industria-poligonoaren eta La Salle ikastetxearen eta hilerriaren ekipamendu-eremuen artean kokatzen diren lurrak hartzen ditu. Zona egokia da Abendañoeko industria-zona zabaltzeko eta aurretik daudenen inguruko ekipamenduak eta espazio libreak ezartzeko. Aurreko dokumentuan esparru hori ingurumen-hobekuntzako kategoriarekin (leheneratu beharreko eremu degradatuak) eta nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko kategoriarekin agertzen zen. Aurreko bi kasuetan bezalaxe, eremu hau sektorizatuko industria-lurzoruko premia justifikatuko duen berariazko azterlana egin beharko da, eta ekipamendu berriak ezartzea edo gaur egun zonan dauden ekipamenduak zabaltzea aurreikusiko da.

Edonola ere, sektorizazioari ekin bitartean, esparru horretan aplikatzekoa izango da nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko eremuko (AG) lurzoru urbanizaezinaren kategoriarako aurreikusitako erabileren erregimena; nolana ere, espresuki debekatzen da beste baserri batzuk eraikitzea, aurretik dauden baserrien azalera eraikia areagotzea eta abeletxeak edo ukuiluratze intentsiboko instalazioak eraikitzea.

4.1.4. Aldapetako ekipamendu-lursailak bizitegi-erabilerarako birkalifikatzea

2-2 eremuak (OR ALDAPETA) 4.268 m² inguruko azalera du, eta antzinako Santa Ana ikastetxearen lurrak hartzen ditu. Aurreko dokumentuan ekipamendu-lursail gisa hartzen zen. Erabilera aldatzea planteatzen da, babes-erregimene baten mende dauden 50 etxebizitza eraikitzeko eta ekipamendu publikoko lokalak lortzeko. Horrez gain, zona osoan irisgarritasuna hobetzearen aldeko hauta egiten da. Horretarako, oinezkoen mugikortasuna bermatuko duen eta, aldi berean, Vista Alegreko esparruko mugikortasuna hobetuko duen igogailu/funikular bat eraikitzea planteatzen da.

4.1.5. Tejeriako industria-lurzorua ez zabaltzea

20. eremuak (OR TEJERIA) autobidearen hegoaldean kokatutako antzinako Tejeriako pabilioia hartzen du. Pabilioi horrek hainbat ekonomia-jarduera txiki hartzen ditu –industria-jarduerak dira batik bat–. Arau Subsidiarioak hasiera batean onartzeko dokumentuan, 75.114 m²-ko lurzoru urbanizagarriko sektore bat mugatzen da hirugarren sektoreko erabileretarako. Oraingoan, berriz, ZHAPOk aukera hori baztertu du, eta hiri-lurzoru gisa kalifikatzen du sektore hori, 88ko arauen mugapenera itzuliz –10.100 m²-ko azalarekin–.

Gaur egun dagoen hirigintza-eraikigarritasuna finkatzea planteatzen da, baita Plan Bereziaren bidez hirigintza-eraikigarritasun hori berrantolatzea eta berritzea ere. Dena den, N-634 saihebidetaren trazadura-proiektua behin betiko onartu ondoren eta eremuan izango dituen eraginak xehetasunez ezagutu ondoren, soilik, idatzi ahal izango da Plan Berezi hori. Plan Bereziak emaitzazko lursail pribaturako sarbidea bermatu beharko du, saihebidetara eraiki ondoren. Gainera, aurretik dauden bideetarako sarbidea bermatu beharko du. Plan Bereziak ezartzen duen hirigintza-eraikigarritasunak ezin izango du gaintitu gaur egun eraikinak duen eraikigarritasuna. Produkzio-erabilera izango da erabilera bereizgarria, eta bulegoetako hirugarren sektoreko erabilera ere onartuko da, baldin eta azalera eraikiaren % 50 gaintitzen ez badu.

4.2. INPAKTU NAGUSIEN BALORAZIO OROKORRA

Aurreko idatz-zatian deskribatutako proposamenak baloratuko dira ondoren.

4.2.1. Lurzoru urbanizaezina kalifikatzeko proposamenaren aldaketa

ZHAPOk egiten duen lurzoru urbanizaezinen kalifikaziorako proposamena bat dator Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan ezarritako irizpideekin eta zehaztapenekin, baita Urola-Kostako Lurraldearen Zatiko Planean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeke Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoekin ere.

Ingurumen Hobekuntzako kategoria desagertzeak ez dakar kategoria horretan sartzen ziren bertako basokoen eremu naturalen, sastrakadi-zonen eta abarren babes murriztea; Baso Babeslearen kategoriaren barruan sartuko baitira, eta kategoria horren barruko erabileren eta jardueren erregulazioa aurretik ezarritakora egokitzen baita.

Quercus suber espeziearen enklabeak Babes Bereziaren kategoriaren barruan sartzea (EP3) oso positiboa da espezie katalogatu horren babesaren ikuspuntutik.

Aurreko arauetan ez zen barne hartzen Inurritza zonari dagokion Ingurune Hezeak babesteko eta antolatzeke Lurraldearen Arloko Planaren antolamendu-esparrua, baina orain Interes Naturalistikoko Eremuetako baldintzatzaile gainjarri gisa gaineratu da. Neurri hori oso positiboa da, zona horretan garatzen den edozein jardun haren ondorioen ebaluazio egokiaren mende egon beharko duela bermatzen baita.

Kategoriaren mugapen berria, beraz, doitasun handiagoarekin egokitzen zaio lurraldearen errealitateari, 2005ean landutako landaredi-mapean oinarrituta egin baita. Urola-Kostako Lurraldearen Zatiko Planak definitzen dituen interes hidrologikoko eremuak (lurpeko urak, akuiferoen babes) gainerako kategorietarako baldintzatzaile gainjarriak dira, dokumentu horretan ezartzen den bezalaxe.

Horrenbestez, ez da aurreikusten lurzoru urbanizaezineko erabilerak kalifikatzeko eta erregulatzeko proposamenaren ondoriozko inpakturik.

4.2.2. Astierreka sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarritzat hartzea

ZHAPoren dokumentu berrian ez da Asti babes ofizialeko etxebizitzak garatzeko lehentasuneko sektore gisa aintzat hartzen; orain sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzea proposatzen da. Hori aldaketa esanguratsua da garapen iraunkorrari dagokionez, zona horretan jarduteko aukera atzeratu egin baita Salberdin eta Hegoaldeko eremuetako hiri-birmoldaketa garatu arte. Gainera, etxebizitza babestuaren premia justifikatuko duen azterlan bat landu beharko da. ZHAPoren iritziz, aukera hori bat dator ingurumen-inpaktuaren aurretiazko txostenean biltzen diren hiri-birmoldaketako esparruei lehentasuna emateari buruzko gomendioekin.

Proposamen horrek sortutako inpaktuak 2005eko abuztuko Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioari buruzko Azterlanean Astirako deskribatutako berak dira (69. orrialdea); alabaina, zertxobait arindu dira Planak sektore horretarako aurreikusten dituen hainbat zehaztapenekin. Horien artean honakoak nabarmentzen dira:

- Sektorizazioari ekin bitartean, esparru horretan lehentasunez aplikatzekoa izango da Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean aurreikusten den araudia, betiere Plan horretan mugatutako esparruan. Lurraldearen Arloko Planean sartzen ez den esparruaren gainerakoan, berriz, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko eremuko (AG) lurzoru urbanizaezineko kategoriarako aurreikusitako erabileren erregimena izango da aplikatzekoa; nolahi ere, espresuki debekatzen da beste baserri batzuk eraikitzea, aurretik dauden baserrien azalera eraikia areagotzea eta abeletxeak edo ukuiluratze intentsiboko instalazioak eraikitzea.
- Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean balio handienekotzat jotzen diren zonetan aplikatuko da espazio libreen sistema orokorra, zona horiek kontserba eta birsor daitezen babesteko.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean ezartzen diren zehaztapenak beteko dira.
- Urpean geratzeko arriskuaren xehetasun-azterlana eskatuko da.

Hori dela eta, erreken, landarediaren eta faunaren gainean aurreikusten den inpaktua neurrizkoa izango da, eta aurreko planean larrizat jotzen zen.

4.2.3. Astazubi eta Errotazar sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarritzat hartzea

Astazubi sektorea.- Sektore hau lurzoru urbanizaezina izatetik (Udalerriko Lurzoru Erreserba) sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarri izatera pasa da; nolahi ere, lur horien azken xedea ez da aldatu, Abendaño eta Errotaberri industria-zonen balizko zabaltze gisa planteatzen baita –lurzoru urbanizaezina zenean bezalaxe–. Azalera 28.903 m²-tan murriztu da (95.334 m² izatetik 66.431 m² izatera). Eremu hori sektorizatzeke, Astierrekako eremuaren kasuan bezalaxe, industria-lurzoruaren premia justifikatuko duen azterlana landu beharko da, eta, edonola ere, Planaren indarraldiaren bigarren laurtekoetik aurrera ekitea planteatu da –hiri-birmoldaketa kudeatzen hasi ondoren–.

Aurreko dokumentuan esparru horren etorkizuneko xedeari dagokionez planteatu diren aldaketak ez dira garrantzitsuak, eta, horrela, 2005eko abuztuko azterlanean egindako ingurumen-balorazio bera du (70. orrialdea). Sektorizazioa gauzatuz gero, inpakturik garrantzitsuenak erreken gainean eta gaur egun dagoen kalitate agrolagiko handiko lurzoruen gainean gertatuko da.

Errotazar sektorea.- Sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarriko sektore hau aurreko planean lurzoru urbanizaezineko lurretan mugatzen zen –Ingurumen Hobekuntza kategoria (Leheneratu beharreko eremu degradatuak) eta nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala kategoria zuen–. Zona horretarako ingurumen-aldagaiak honako taulan laburbiltzen dira:

ALDAGAIAK	ERAGINA	BALORAZIOA
Erliebea	% 10 eta % 30 arteko pendizak ditu	Handia
Ibilguak eta ur-bazterrak	Makazeta erreka hegoaldeko ertza ukitzen du	Txikia
Akuiferoak	Urrakortasun oso txikiko eremua da	Txikia
Kalitate agrologikoko lurzoruak	Neurrizko erabilera-ahalmena duten sega-belardietan du eragina	Ertaina
Landaredi-estaldura	Belardiek, baratzeek, fruta-arbolek, sastrakadiak eta baso-landatze txikiren batek osatzen dute gaur egungo landaredia	Ertaina
Fauna	Ez du espazio interesdunen gainean eraginik	Txikia
Paisaia	Nekazaritza-paisaia ikusmen handiko mazela bihurtzea	Ertaina
Kultura-ondarea	Eraginik gabe.	Txikia
Arriskuak	Malda dela eta, haren urbanizazioak irristatzeak eta/edo higadura eragin dezake	Ertaina
Eremu interesdunak	Eraginik gabe.	----

Erliebea izango da eragin handiena izango duen aldagaia; izatez, pendiza dela medio, lur-higidura handiak egin beharko dira. Hasiera batean eta eragin horiek zorrotzasunez baloratzeko aukera emango duen proiekturik ezean, ezegonkortasuneko eta higadurako arriskuak arras gehituko dira.

Gaur egun dagoen landarediak ez du interes berezirik, eta belardiak, baratzeak eta fruta-arbolak izango dira eraginpean, baita hilerriaren hegoaldean landatutako baso txiki bat ere. Makazeta erreka ez da, itxuraz, mugapenaren eraginpean egongo.

Sektore hori garatuz gero, nolabaiteko inpaktu paisajistikoa sortuko da lurraz mazelan egotearen ondorioz.



4.2.4. Aldapetako ekipamendu-lursailak bizitegi-erabilerarako birkalifikatzea

2-2. eremua (OR ALDAPETA) berriro kalifikatu da, eta ekipamendu-erabileratik bizitegi-erabilerara aldatu da. Horrez gain, 1.407,56 m²-tan gehitu da haren azalera, Vista Alegre esparruarekiko lotura ahalbidetzearen –horretarako, auzo horretako oinezkoen mugikortasuna bermatu eta hobetuko duen igogailu/funikular bat eraikiko–. Txertatzen den lursail txikia lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta zegoen –nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala kategoriarekin–, eta gaur egun harizti azidofilo batek okupatzen du.



4.2.5. Tejeriako industria-lurzorua ez zabaltzea

20. eremuaren kasuan (OR TEJERIA), hirugarren sektoreko lurzoru urbanizagarriaren mugapena baztertzea eta finkatu gabeko hiri-lurzoru gisa egungo mugapenarekin mantentzea proposatzen du ZHAPOk; haatik, saihezbidea eraiki ondoren antolatu beharko da. Horrela 75.114 m²-ko azaletarik 10.100 m²-ko azalera murriztu da. Sektore horrek autobidean zein etorkizuneko saihezbidean izan ditzakeen eraginei buruzko Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuaren proposamenak izan dira kontuan. Argazkian, marratuta eta aurretik aintzat hartutakoaren gainean gainjarria ageri da zona berria.



Hori dela eta, 2005eko abuztuko azterlanean esparru horren gainean hautemandako inpaktuak (73., 82. eta 85. orrialdeetan) indargabetu egingo dira.

4.3. AZKENEAN HAUTATUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

ZHAPOn dokumentazioan txertatu den “Ingurumen Inpaktuari buruzko Aurreiazko Txostena Betetzearen Memoria Justifikatzailea” dokumentuan, hautatutako antolamendua justifikatzen duen idatz-zati bat gaineratu da –garapen iraunkorraren printzipiotik justifikatuta dago–.

Aurreko arauen dokumentuekin alderatuta, Plan Orokorrean planteatzen diren aldaketak egitean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuak ezarritako jarraibideak hartu dira kontuan. Lehenik hiri-zonak birmoldatzearen eta hiri-bilbean dauden hutsuneak betetzearen aldeko hauta egin da. Horrela, gaur egun urbanizaziorik ez duten esparruak okupatzea saihesten da, eta bertako ezaugarriak eta balioak mantentzen direla bermatzen da, esparru horiek sektorizatzeke premia zehatz-mehatz aztertzen ez den arte.

5.- INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

Ilatz-zati honetan ZHAPOren proposamen berrien inpaktuak identifikatzen eta kalifikatzen dira.

5.1. LURZORU URBANIZAEZINA KALIFIKATZEKO PROPOSAMENAREN ONDORIOZKO INPAKTUAK

Ez da proposatutako zonabaratzearen ondoriozko inpakturik aurreikusten.

5.2. ASTIERREKA SEKTORIZATU GABEKO LURZORU URBANIZAGARRI GISA MUGATZEAREN ONDORIOZKO INPAKTUAK

Saillapen berriaren ondoriozko inpaktuak ez dira 2005eko abuztuko azterlanean adierazitakoak, aurreko 4.2.2. puntuan azaldutako arrazoien ondorioz. Aditzera emandako azterlaneko irizpide berari jarraituz, sektore horretako inpaktuaren matrizea zuzendu da.

ALDAGAIK	INPAKTUEN ZEHAZTAPENA			
	Zeinua	Intentsitatea	Sinplea / Metakorra / Sinergikoa	Zuzenekoa / Zeharkakoa
Erliebea	(-)	Txikia	Sinplea	Zuzenekoa
Ibilguak eta ur-bazterrak	(-)	Ertaina	Metakorra	Zuzenekoa
Kalitate agrológikoko lurzorua	(-)	Handia	Sinplea	Zuzenekoa
Landaredi-estaldura	(-)	Ertaina	Metakorra	Zuzenekoa
Fauna	(-)	Ertaina	Sinplea	Zuzenekoa
Paisaia	(-)	Ertaina	Sinplea	Zuzenekoa
Kultura-ondarea				
Ur-kontsumoa	(X)			
Hondakinak eta hondakin-urak	(X)			

(X) Planak sektore horretarako etxebizitza kopuru zehatzik aurreikusten ez duenez gero, ez dago ur-kontsumoaren gehikuntzan eta hondakinen eta hondakin-uren gehikuntzan izango duen eragina baloratzerik.

Arriskuak: sektorea 10 urteko birgertatze-aldian urpean gera daitekeen zona batean dago, Euskal Autonomia Erkidegoko barruko arroetako gune biztanduetan urpean gera daitezkeen zonak mugatzeko azterlanaren arabera (2004). Arrisku hori azterlan xehatu bidez aztertu beharko da, eta hala zehaztu da haren hirigintza-fitxan, betiere garatzen bada.

Hauek dira eremu horretan aurreikusten diren inpakturik garrantzitsuenak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurune Hezeak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren antolamendu-esparruaren gainean zuzenean izango du eragina.

- Bizitegi-lurzoru gisa garatuz gero, gaur egungo landaredi-estaldura eraginpean egongo da, eta bertan interes handiko padurako landaredia agertuko da.
- Interes handiko fauna-espezieen habitatak galduko dira, betiere sektorea garatuz gero.
- Biztanleria gehitu ahala, gehituko da ur-kontsumoa, betiere esparrua garatzen bada.
- Hondakinen eta hondakin-uren sorrera gehituko da, uraren kasuan agertzen zen kausa beragatik. Sortzen den eragina, gainera, metakorra izango da, eta behar bezala kudeatzea bermatuko duten neurri egokiak ezarri beharko dira.

5.3. ASTAZUBI ETA ERROTAZAR SEKTORIZATU GABEKO LURZORU URBANIZAGARRI GISA MUGATZEAREN ONDORIOZKO INPAKTUAK

Eremu horien sektorizazioa hirigintza-fitxetan adierazitako helburuarekin gauzatzen bada, gertatuko dira mugapen horren ondoriozko inpaktuak. Astazubiren kasuan 2005eko abuztuko azterlanean adierazitako berak izango dira, azalera murriztu dela kontuan izanik. Hauek dira sektore horietarako inpaktu-matrizeak:

ASTAZUBI

ALDAGAIK	INPAKTUEN ZEHAZTAPENA			
	Zeinua	Intentsitatea	Sinplea / Metakorra / Sinergikoa	Zuzenekoa / Zeharkakoa
Erliebea	(-)	Txikia	Sinplea	Zuzenekoa
Ibilguak eta ur-bazterrak	(-)	Handia	Sinplea	Zuzenekoa
Kalitate agrologikoko lurzorua	(-)	Handia	Sinplea	Zuzenekoa
Landaredi-estaldura	(-)	Txikia	Sinplea	Zuzenekoa
Fauna	(-)	Txikia	Sinplea	Zuzenekoa
Paisaia	(-)	Ertaina	Sinplea	Zuzenekoa
Kultura-ondarea	(-)	Ertaina	Sinplea	Zuzenekoa
Ur-kontsumoa	(X)			
Hondakinak eta hondakin-urak	(X)			

(X) Uraren kontsumoa eta hondakinen (kantitatea eta tipologia) eta hondakin-uren sorrera espazio horretan kokatuko diren industrien araberakoa izango da, batik bat.

Arriskuak: sektorea 10 urteko birgertatze-aldian urpean gera daitekeen zona batean dago, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko barruko arroetako gunen biztanduetan urpean gera daitezkeen zonak mugatzeko azterlanaren arabera. Arrisku hori azterlan xehatu bidez aztertu beharko da, eta hala zehaztu da haren hirigintza-fitxan, betiere garatzen bada.

Hauek dira bertan aurreikusten diren inpakturik garrantzitsuenak:

- Mugatutako eremu osoa hegoaldetik iparraldera zeharkatzen duen Iturri Illun erreka gainean eragina izango du, eta eremu horren urbanizazioak erreka gainean eragina izango du, zalantzarik gabe. Eragin horren intentsitatea egiten den urbanizazio-diseinu zehatzaren mende izango da, betiere garatzen bada. Hirigintza-fitxan Euskal

Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapenekiko errespetua zehazten da.

- Urpean geratzeko arriskuaren ondoriozko inpaktuak sortuko dira.
- Gaur egungo sega-belardietan eta kalitate agrologikoko labore-lurretan eraginpean dagoen azalera osoa galduko da.
- Zerrendatutako ondare-elementuen gainean eragina izango du (Errotabarri baserria eta errota).

ERROTAZAR

ALDAGAIK	INPAKTUEN ZEHAZTAPENA			
	Zeinua	Intentsitatea	Simplea / Metakorra / Sinergikoa	Zuzenekoa / Zeharkakoa
Erliebea	(-)	Ertaina	Simplea	Zuzenekoa
Ibilguak eta ur-bazterrak	(-)	Txikia	Simplea	Zuzenekoa
Kalitate agrologikoko lurzorua	(-)	Ertaina	Simplea	Zuzenekoa
Landaredi-estaldura	(-)	Txikia	Simplea	Zuzenekoa
Fauna	(-)	Txikia	Simplea	Zuzenekoa
Paisaia	(-)	Ertaina	Simplea	Zuzenekoa
Kultura-ondarea				
Ur-kontsumoa	(X)			
Hondakinak eta hondakin-urak	(X)			

(X) Uraren kontsumoa eta hondakinen (kantitatea eta tipologia) eta hondakin-uren sorrera espazio horretan kokatuko diren industrien edo ekipamenduen araberakoa izango da, batik bat.

Arriskuak: ezegonkortasun-arazoak ager daitezke maldaren ondorioz eta, sektorea garatuz gero, egin beharreko lur-higiduren ondorioz. Alderdi hori azterlan geotekniko xehatuaren bidez aztertu beharko da.

Hauek dira bertan aurreikusten diren inpakturik garrantzitsuenak:

- Lurrak mazelan egotearen ondoriozko inpaktu paisajistikoa sortuko da. Hori dela eta, hirigintza-fitxan jada aurreikusten da industria-erabilera behe-aldean kokatzea eta goialdea espazio libreetarako eta zuzkiduretarako uztea. Horrela, eraikinek jarraitasuna osatuko dute Abendañoko gaur egungo poligonoarekin, eta inpaktua murriztu egingo da.
- Gaur egungo belardietan, labore-lurretan eta zuhaitzi batzuetan eraginpean dagoen azalera osoa galduko da.

5.4. ALDAPETA BERRIRO KALIFIKATZEAREN ONDORIOZKO INPAKTUAK

Jardun hau ez zen aurreko azterlanean aztertu, eta inpaktu hauek aurreikusi dira:

ALDAGAIK	INPAKTUEN ZEHAZTAPENA			
	Zeinua	Intentsitatea	Sinplea / Metakorra / Sinergikoa	Zuzenekoa / Zeharkakoa
Erliebea	(-)	Txikia	Sinplea	Zuzenekoa
Ibilguak eta ur-bazterrak				
Kalitate agrologikoko lurzorua	(-)	Txikia	Sinplea	Zuzenekoa
Landare-estaldura	(-)	Txikia	Sinplea	Zuzenekoa
Fauna	(-)	Txikia	Sinplea	Zuzenekoa
Paisaia	(-)	Txikia	Sinplea	Zuzenekoa
Kultura-ondarea				
Ur-kontsumoa	(-)	Txikia	Sinplea	Zeharkakoa
Hondakinak eta hondakin-urak	(-)	Txikia	Metakorra	Zeharkakoa

Arriskuak: esparruari gaineratzen zaion lursailak pendiz handia du. Ez da arazorik aurreikusten; izan ere, eraikuntza gaur egun ikastetxeak okupatzen duen esparruan planteatzen da, eta zona hori espazio libreak kokatzeko utzi da. Hala ere, igogailua/funikularra eraikitzeke, dagokion azterlan geoteknikoa egin beharko da.

Ez da jardun horren ondoriozko inpaktu esanguratsurik aurreikusten. Goialdean dagoen zuhaitzia ahal den heinean mantentzen saiatuko da. Eragin positibotzat jotzen da mugikortasuna hobetzea eta Vista Alegre eta Zarauzko hirigunearen arteko lotura hobetzea.

5.5. TEJERIAKO SEKTOREA EZ ZABALTZEAREN ONDORIOZKO INPAKTUAK

Jardun horren ondoriozko inpaktuak positibotzat jotzen dira –aurreko dokumentuarekin alderatuz gero–, aurreikusten zen zabaltzea bertan behera utzi baita. Horrenbestez, ez da erliebea aldatuko, ez da hostozabalen zuhaitzien gainean eraginik sortuko eta ez da inpaktu paisajistikoa sortu dezaketean ezpondarik egingo. Hori dela eta, 2005eko abuztuko ingurumen-inpaktuari buruzko azterlaneko 82. orriko matrizea baztertu egin behar da.

ZHAPOn aintzat hartzen den mugapenak ez du zonaren gaur egungo egoerarekiko aldaketarik eragingo; ez du, beraz, eraginik ingurumenaren gainean.

5.6. INPAKTUEN KALIFIKAZIOA

Honako jardun hauek izan ditzaketen inpaktuak ebaluatu dira: Astierreka eta Astazubi esparruen kalifikazioa aldatzeko dagokiona, Errotazar sektore berriaren mugapenari dagokiona eta Aldapetako sektorea handitzeko eta haren kalifikazioa aldatzeko dagokiona. Lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioan eta Tejeriako esparruan sortzen diren aldaketek ez dute inpakturik sortzen ingurumenaren ikuspegitik; aitzitik, aurreko dokumentuaren aldean egoera hobetzen dute.

Horrez gain aditzera eman behar da baloratzen diren inpaktuak, Aldapetaren kasuan izan ezik, esparruak sektorizatzen badira soilik sortuko direla. Hori gertatzen ez den artean, Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapenek –Astierrekako kasuan– eta ZHAPoren zehaztapenek –nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko lurzoru urbanizaezinerako– erregulatuko dituzte bertako ingurumen-baldintzak. Horrela, nolabait bermatuko da gaur egungo baldintzak mantentzea.

Identifikatzen diren inpaktuak 2005eko abuztuko azterlanaren 6. kapituluko neurri zuzentzaileekin murriztu ahal izango dira, baita Eranskin honetako hurrengo idatz-zatian ezartzen diren neurriekin ere.

ALDAGIAK	INPAKTUAREN MAILAK			
	Astierreka	Astazubi	Errotazar	Aldapeta
Erliebea	Bateragarria	Neurrizkoa	Neurrizkoa	Bateragarria
Ibilguak eta ur-bazterrak	Neurrizkoa	Neurrizkoa	Bateragarria	---
Kalitate agrologikoko lurzoruak	Bateragarria	Larria	Bateragarria	Bateragarria
Landaredi-estaldura	Neurrizkoa	Bateragarria	Bateragarria	Bateragarria
Fauna	Neurrizkoa	Bateragarria	Bateragarria	Bateragarria
Paisaia	Bateragarria	Neurrizkoa	Neurrizkoa	Bateragarria
Kultura-ondarea	---	Neurrizkoa	---	---
Ur-kontsumoa	Ezin da baloratu	Ezin da baloratu	Ezin da baloratu	Bateragarria
Hondakinak eta hondakin-urak	Ezin da baloratu	Ezin da baloratu	Ezin da baloratu	Bateragarria

Hauek dira sortzen diren inpakturik garrantzitsuenak:

- Astierrekan, errekaen gainean, padurako landarediko enklabeen gainean eta, horrenbestez, habitat horiekin lotzen den faunaren gainean.
- Astazubin, Illun errekaen gainean eta osagai agrologikoaren gainean, nekazaritza-kalitate handiko lurretan eragina baitu. Gainera, Errotaberri baserrian eta errotan eragina izan dezake.
- Errotazarren erliebearen eta paisaiaren gainean.

6.- NEURRI BABESLEAK, ZUZENTZAILEAK ETA KOMPENSATZAILEAK

2005eko abuztuko azterlanean proposatutako neurrietako batzuk ez dute baliorik ZHAPOren dokumentu berrirako; hori dela eta, eranskin honetan berriro biltzen dira azterlan horretako 6. idatz-zatiko proposamenak, baina ingurumen-inpaktuaren aurretiazko txosteneko zehaztapenetara eta ZHAPOren proposamen berrietara egokituta.

6.1. ZHAPOREN HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK EGOKITZEKO PROPOSAMENA

Ingurumenaren ikuspegitik, ZHAPOren helburuak eta jardun-ildoak bat datoz udalerriko ingurumen-balioen babesarekin eta leheneratu eta berriro behar diren inguruneko elementuak eta prozesuak berritzearekin eta leheneratzearekin.

Bestalde, dokumentuan planteatutako estrategiaren oinarrietako bat da bizitegi hiri-esparruaren barruan dauden industria-zonak birmoldatzearen bidez hiri arloko berritze-jardunak sustatzea. Industria-jarduera horiek bertatik atera eta autobidearen hegoaldean kokatuko dira, eta hori guztiz egokia da. Horrez gain, hautemandako babes ofizialeko etxebizitzaren premia ebatzi nahi da, eta, hala, hiri-bilbetik atera eta lekuz aldatu behar diren enpresak kokatzeko gaur egun dagoen industria-lurzorua finkatzea proposatzen da. Aurreikuspen gisa, sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarriko hiru zona mugatu dira. Nolanahi ere, berriazko azterlan batek bizitegi- edo industria-erabilerarako lurzoru gehiagoren premia zehazten eta justifikatzen duen arte, ezin izango dira garatu. Hori guztia ingurunearekin ahalik eta modurik koherenteenean eta atseginean egin beharko da, ingurune naturala errespetatzeko helburuekin bat eginez.

Haatik, arauetan aurreikusten diren hazkundeak gauzatzeko kontuan izan beharko diren hainbat helburu zerrendatzen da baterako ebaluazioari buruzko azterlan honetan:

- ZHAPOk planteatzen dituen hainbat fasetako pixkanakako hezkundeak gauzatzeko, sektore batzuk finkatu ondoren (birmoldatu beharreko hiri-bilbeko sektoreak hain zuzen ere) hasi beharko dira beste sektoreak garatzen; hala gertatzen dela bermatu beharko da.
- Gertatuko den biztanleriaren hazkundeak arazorik gabe hartzeko, behar beste gehitu beharko da azpiegituren ahalmena. Ildo horretan, behar-beharrezkoa izango da udalerrian sortuko den hondakinen gehikuntza behar bezala kudeatzea. Gehikuntza hori aurreikusten den bizitegi-hazkundearen ondoriozkoa ez ezik, planteatutako sektorizatu gabeko lurzoruak okupatzeko aukeraren ondoriozkoa ere izango da.
- Ingurumenean izango duen eragina gutxiagotuko da; haatik, arriskuan egon daitezkeen lekuetan (urpean gera daitezkeen eremuetan, pendiz handiko zonetan edo sektore edo zona mugakideetako habitat naturala) ahalik eta eraginik txikiena izango duten irtenbideak eta diseinuak hartuko dira.
- Azterlan honen ondoriozko neurri babesleak eta zuzentzaileak bere egingo dira, baita proposatzen diren garapen-plangintzarenak eta N-634 errepidearen Zarauzko saihesbidearen trazaduraren behin betiko proiektuarenak ere.

6.2. PROPOSAMENEN INGURUMEN KOSTUA SAIHESTEKO EDO MURRIZTEKO NEURRIAK

6.2.1. Inpakturik esanguratsuenen gaineko neurri zuzentzaileak

Hauek dira zehaztutako inpaktu nagusiei dagozkien neurri zuzentzaileak:

- Ur-ibilguetan eragina duten sektorizazio-proiektuak (Astierreka eta Astazubi) ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bereziaren prozeduraren mende izango dira, 3/1998 Legearen 47. artikuluan eta I B) Eranskinean ezarritakoaren arabera.
- Aurreikusten diren sektoreetan urbanizazio-obrei ekin aurretik, urbanizatu beharreko espazioaren okupazio-zona zehatza zuinkatuko da, ondoko zonak okupatzea saihestearren. Astierreka garatuz gero, arreta berezia jarriko zaie paduretako landarediko zonei.
- Hiri-hondakin solidoen bilketaren kudeaketa, berriz, biztanleria gehitzearen ondoriozko hondakin horien gehikuntzari egokitu beharko zaio. Horretarako, biltegiko beste leku batzuk antolatu beharko dira, bilketarako baliabideak berriro dimentsionatu beharko dira, eta abar.
- Orokorrean, sektore guztietan hartu beharko da kontuan aurretiazko azterlan geoteknikoa. Eraikuntza-fasean sortzen diren lur-erazketak eta lur-higidurak pendiz handieneko lurzoruetan ezegonkortasun eta higadura arloko arazorik ez sortzeko moduan egin beharko dira.
- Hirigunean dauden industria-zonak lekuz aldatu aurretik, lurzoruaren kalitateari buruzko informazioa eskatu beharko da, eta informazio horren arabera kautelazko neurri egokiak hartu beharko dira –halako neurriak beharrezkoak badira, jakina–.
- Obrak egiten direnean sortzen diren zaraten ondorioz, pertsonengan eraginak ez sortzea bermatu beharko da. Horretarako, ezin izango dira kanpora emititzen diren zaraten gehieneko maila baimenduak gainditu. Airearen kalitatearen erregelamendua onartzen duen 74/1996 Dekretuaren III. Eranskinean ezartzen dira maila horiek.
- Proposatutako sektoreetako urbanizazio-obrak egiten diren bitartean, aldi behin ureztatuko da lurra sasoi lehorretan –lurra higitzen denean hautsa esekiduran egon dadin saihestearren– eta lur horiek garraiatzeko olanak jarriko zaizkie kamioiei.
- Jabari publiko hidraulikoaren korridore ekologikoko funtzioa sustatuko da.
- Hiriko espazio libreen diseinuan eta, oro har, landarediaren tratamenduan, biodibertsitate-irizpideak hartuko dira aintzat.

6.2.2. Neurri babesleak eta zuzentzaileak, kokalekuari dagozkionak, lurzoruen sailkapen eta kalifikazioari dagozkionak, hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren zehaztapenei dagozkionak, erabilera orokor eta xehatuei dagozkionak, industria-eremuetako berariazko zehaztapenei dagozkionak, jardun kopuruari dagozkionak, horien dimentsio eta/edo ahalmenari dagozkionak, erabilitako teknologiei dagozkionak, eta abar

- Astierreka, Astazubi eta Errotazar esparruak sektorizatu aurretik, azterlan xehatuan aztertu beharko da horiek garatzeko premia eta justifikazioa (dagozkien hirigintza-fitxetan aintzat hartzen den moduan). Esparru horiek garatzen badira, alderdi hauek aztertu beharko dira batik bat:

- Habitatik naturalenen gaineko eragina, hala nola Astierrekako zonako padura enklabeen gainekoa eta Astierreka eta Astazubi zeharkatzen duten erreken urbazterren gainekoa.
- Astazubi esparruaren barruan dauden Errotaberri baserrian eta errotan eragina izateko aukera.
- Aldapeta eta Errotazar esparruen zonabanatze xehatua (garatuz gero) zonako topografiara egokituko da –ahal den neurrian–, lur-higiduren premia eta horien inpaktu paisajistikoa murriztearren. Eraikuntza-erabilerak lurrik lauenetan kokatuko dira, eta pendiz handieneko zonetan dagoen landarediari eutsiko zaio –espazio libre gisa kalifikatuko dira–.

6.2.3. Baliabide natural estrategikoak kontserbatzeko neurri babesleak

- Edozein urbanizazio-obrari hasiera eman aurretik, lurzoru emankorraren goialdeko geruza horizonteka bereizita kentzea aurreikusi beharko da. Lur hori degradatutako zonak leheneratzeko erabiliko da, bai urbanizatu beharreko sektore horretan bertan, bai halakorik behar duten hurbileko zonetan. Metatzea beharrezkoa bada, gehienez bi metroko altuera izango duten pilatan metatu beharko dira, aireztatzea errazteko eta lurra trinkotzea saihesteko.
- Bertako landarediko eta/edo ur-bazterreko landarediko orbanak errespetatzea eta integratzea hartu beharko da kontuan, diseinuaren irizpide gisa.
- Obren eraginpean dauden eremu urbanizatuaren eremu mugakideak leheneratu beharko dira. Lurraren leheneratze geomorfologikoa eta edafikoa egin beharko da, eta landaredi-estaldura manten dezaketen espazioetan landaredia ezarri beharko da berriro.
- Obrak amaitutakoan, horien eraginpean dauden eremuak zehatz-mehatz garbitu beharko dira, eta birzikla daitezkeen hondakinak eta birziklatu ezin direnak berezi egin beharko dira –lehenak dagokien moduan tratatuko dira eta bigarrenak zabortegi baimendu batean utzi beharko dira–.
- Ur-ibilguetan eragina sortzen den kasu guztietan (Errotaberri, Astierreka, Astazubi eta Irita), Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean urbanizaziorako eta eraikuntzarako ezarritako gutxieneko atzerapena bermatu beharko da, baita Plan horretako zehaztapenak betetzen direla ere. Dena den, jardun horiek jabari publiko hidraulikoan dute eragina, eta, beraz, organismo eskudunaren onespeneraren mende jarri beharko dira, lizentzia lortu aurretik baimenduko badira.
- Bertako landarediko orbanen arteko lotura sustatuko da, batez ere Baso Babeslearen kategoria duten lurzoru urbanizaezineko orbanen artekoa.

6.2.4. Hiri-ingurumena hobetzeko neurriak

- Eguzkia jasotzeko eraginkortasuna hartuko dute kontuan eraikuntzen orientabidea definitzeko, horien energia-jokabidea hobetzeko (batez besteko tenperatura altuagoa, berogailu-kontsumo txikiagoa, eta abar) eta eguzki-argiaren aprobetxamendua hobetzeko (elektrizitate-kontsumo txikiagoa).
- Proposatutako sektoreen urbanizazioan zolatutako eremu iragazgaitzak mugatzen saiatu beharko da, lurraren iragazgaitze naturaleko ahalmena mantentzearen. Oinezkoentzako

espazioetan eta ibilgailuentzako sarbideetan euriarekiko iragazkorak diren materialak erabiltzea planteatuko da.

- Sektoreetako espazio publikoetan eta eraikin berrietako espazio komunetan, argi-poluzioa saihestuko duten kontsumo txikiko argizatze-sistemak erabiliko dira.
- Hiri-hondakinak gaika biltzeko espazio egokiak aurreikusiko dira.
- Ingurunearen ingurumen-ezaugarriak kontuan izanik, eta eraikuntzak zonaren paisaian integratuko badira eta ikus-intrusioak saihestuko badira, udalerriko eraikuntza-tipologiarekin eta estetikarekin bat datozen eraikuntza-baldintzak definituko dira (materialak, koloreak, morfologia, altuerak, bolumenak, eta abar).
- Eraikuntzetan erabili beharreko eraikuntza-materialek isolamendu termiko handia izatea saiaturiko da. Gainera, material horiek ahalik eta iraupen handiena izatea eta ahalik eta poluziorik txikiena sortzea ahaleginduko da.
- Eraikinetako fatxadek orientazioaren araberako tratamendu bereizia izango dute: itxiagoa eta isolatuagoa iparraldean eta irekiagoa eta kristalduna hegoaldean.
- Eraikin berrietan eta espazio publiko komunetan ura eta energia aurrezteko sistemak ezarriko dira. Ur bero sanitarioa hornitzeko sistema mistoak ezartzeko aukera aztertuko da (eguzki-hargailuak eta metagailuak erabiltzea).
- Espazio publikoan dagoen zuhaitzia, berdegune gisa kalifikatu ez badute ere, babestu eta kontserbatu egin beharko da.
- Bide publikoekin mugakideak diren nahitaezko atzeraemanguneko zerrendetan, aginduzkoa izango da landaredi-espezieak landatzea –lehentasunez zuhaitz-espezieak–, eraikuntzaren erabilera edozein izanik ere. Dena den, gerta daiteke atzeraemangune osoa hartzea ibilgailuen zirkulaziorako espazioen trazadurak edota eraikinetarako sarbideen espazioen trazadurak.
- Gaur egun dauden patio edo espazio libre publikoek edo partikularrek lorategiak badituzte, lorategi-espazio horiek egoera onean kontserbatu eta mantendu beharko dituzte, landatze horien eitea edozein izanik ere.
- Ingurumen arloko udal-ordenantza idatziko da.

6.2.5. ZHAPOn beheragoko mailako planak edo programak diseinatzeko irizpide eta arteztarau orokorrak

- Sektoreak garatzeko tresnek hondakinak eta hondarrak kontrolatzen direla bermatzeko beharrezko neurriak barne hartu beharko dituzte eraikuntza fasean. Horretarako, honako neurriak hartuko dira:
 - Sektoreetako obra fasean eta gauzatze fasean sortzen diren soberako materialak hondakin geldoen zabortegei kontrolatu eta legeztatuetara bideratu beharko dira.
 - Sor daitekeen edozein hondakin arriskutsu indarrean dagoen legeriaren arabera kudeatu beharko da.

- Makinen eta motorren olio, koipe eta erregaien isurketen ondorioz, lurzoruen eta lurpeko uren gainean eraginik ez dagoela bermatu beharko da.
- Proposatutako sektoreetako plangintzek isurketa artifizialak kontrolatu beharko dituzte, eta, horretarako, urak topografikoki gunerik deprimituenean meta daitezten saihestuko duen isurialde-diseinua egingo da. Hirigintza-garapenean arreta berezia eskainiko zaie euri-urak husteko eta bideratzeko obrei. Behar besteko tamainarekin dimentsionatuko dira.
- Irita eta Errotaberri sektoreetako garapen-plangintzek (eta Astierreka eta Astazubi sektoreetakoek, garatzen badira) urpean gera daitekeen zona hartu beharko dute kontuan, eta urpean geratzeko arriskuari buruzko azterketa gaineratu beharko dute. Gainera, antolamendua Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak urpean gera daitezkeen zonetarako ezarritako irizpideekin bateragarria dela ziurtatuko duen xehetasun-azterlana txertatu beharko du.
- Astierreka sektorea garatuko duen proiektuak padura-enklabeen hurbiltasuna ere izan beharko du kontuan.
- ZHAPOn dokumentuak 5. Tituluan (5.1.05. artikuluan) ezartzen duen moduan, poluitzailea izan daitekeen jarduera bat dagoen edo izan den lurzoruen kasuetan (lurzorua polui dezaketen jardueren kokalekuen inbentarioan barne hartzen diren esparruen kasuan), obra berriko lizentzia, jarduera bat instalatzeko edo handitzeko lizentzia, edo lur-higiduretarako lizentzia emango badira, lurzoruen poluzioa prebenitu eta zuzentzeko berariazko araudian xedatutakoa hartuko da kontuan, baita, hala badagokio, ingurumen-organo eskudunak egindako lurzoruen kalitatearen alde aurreko deklarazioa ere. Horretarako, lurzoruen kalitatea zehaztu eta ikertuko duen azterlana egin beharko da. Azterlan horren bidez, poluzioa hauteman ahal izango da, eta leheneratzeko baliabideak finkatu ahal izango dira. Horrela, plangintza onartu aurretik, poluzio horrekin lotzen den arriskurik ez dagoela bermatuko da. Azterlan horren ondorioak eta gomendioak garapen-plangintzako berariazko dokumentazioari gaineratuko zaizkio. Hegoalde, Salberdin, Errotaberri eta Irita sektorean du eragina.
- Lurzoruen kalifikazioaren aldaketak izanez gero, aldaketa behin betiko onartu aurretik igorri beharko du ingurumen-organoak lurzoruen kalitatearen deklarazioa.
- Urbanizazio-proiektu bakoitzak ingurumena eta paisaia leheneratzeko proiektua edukiko du, eta bertan obren eta jardun osagarrien (instalazio osagarri, zabortege, hondakindegia, sarbide eta abarren) eraginpean dauden eremuen azterketa egingo da. Era berean, jarduna paisaian integratzeko egin beharko diren jardunak jasoko ditu proiektu horrek.
- Astazubi sektorea garatzen bada, poligonoaren inguruan zuhaitz edo zuhaixka espezieez osatutako palaxua ezartzeko beharra txertatuko zaio sektorizazio-planari, inpaktu paisajistikoa murriztearren.
- Hondakin-urak ez dira inola ere isuriko tokiko sistema hidrologikora. Guztiz debekatuta dago ibilguetara zuzenean isurtzea, edo lurrera zeharka isurtzea. Horrela, sortzen diren hondakin-urak behar bezala husten direla bermatu beharko du zonako azpiegitura hidraulikoak, eta saneamenduko udal-sarearekin lotu beharko du hondakin-ur horien hustuketa.
- Sektore berrien ondoriozko isurketak estolderiako udal-sarera bideratu beharko dira. Edonola ere, gerta daiteke, ezaugarri fisiko-kimikoengatik edo karga poluitzaileengatik,

efluente horiek hondakin-uren udal-araztegiaren arazteko ahalmena gainditzea. Hala gertatzen denean, efluente horiek aurretik araztu beharko dira, araztegiaren funtzionamendu zuzena bermatzeko.

- Ezin izango da okupazio-lizentziarik eman, hornidurako eta saneamenduko saretarako konexioak egin artean.

6.2.6. Ondoriozko ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioetan edo ebaluazio bereizietan sartzeko irizpideak

ZHAPOn aurreikusten diren jardunetako batzuk ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bereiziaren mende izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen 3/1998 Lege Orokorraren I. Eranskinean ezarritakoari jarraituz. Izan ere, ingurumen arloan sentikorrek diren eremuetan dute eragina (erreken jabari publiko hidraulikoa):

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio horietan honako irizpideak sartu beharko dira:

- Urpean geratzeko arriskuaren ebaluazioa eta azterketa zehatza egitea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean ezartzen diren zehaztapenak errespetatu eta gutxieneko atzerapenak betetzea.
- Eraginpean dauden ibilguekin gehieneko errespetuz aritzea eta ur-bazterreko landaredia (halakorik badago) eta egungo trazadura mantentzea –ibilguak ubideratzea eta lurperatzea saihestuko da–.
- Uraren kalitatean ahalik eta eraginik txikiena sortzea.
- Astierrekan dauden padurako enklabeen eta habitaten gaineko eragina zehaztea.

6.2.7. Neurri konpentsatzaileak

- Baso babesle gisa kalifikatutako zonak leheneratuko dira, eta horien artean daude hostozabalen basoak –gazteak edo degradatuak– edo ur-bazterreko landaredia egoera txarrean duten ibai-tarteak.
- Mendebaldeko sektorean babes berezikoat jo diren Quercus suber espezieko enklabeak leheneratu eta hobetu beharko dira.

6.2.8. Neurriak betetzearen adierazleen deskribapena

Hauek dira azterlan honetan proposatzen diren neurri babesleen eta zuzentzaileen betetze mailaren jarraipena egiteko ingurumen-adierazleak:

- Lurzoruaren okupazio maila: gaur egungo hiri-lurzoruko azalera osoa, lurzoru urbanizagarriko azalera osoa eta sistema orokorrek okupatutako lurzoru osoa kontabilizatuko da, ZHAPOren aurretik eta ondoren, eta udalerriko gaur egungo populazioari eta egon zitekeenari dagokionez.
- Garraio-azpiegiturek okupatzen duten azaleraren ehunekoa kontabilizatuko da, ZHAPOren aurretik eta ondoren.
- Lurraldearen osotasunaren gaineko lurzoru urbanizaezineko ehunekoa konputatuko da.
- ZHAPO aplikatu aurretik eta ondoren bidegorriekin egokitutako kaleen luzera hartuko da kontuan.
- Espazio libreen, berdeguneen eta parkeen azalera kontabilizatuko da, ZHAPOren aurretik eta ondoren.
- ZHAPO aplikatu aurretik eta ondoren babestutako azalera kalkulatu da.
- Urbanizatu beharreko sektoreak zeharkatzen dituzten erreken ibilguen eta ur-bazterren egoeraren bilakaera izango da kontuan.
- Arazteko prozesuen ondoren ur-ibilgutara isurtzen diren uren kalitatea izango da kontuan.
- Sektoreen arabera guztira kontsumitzen den ura konputatuko da, plangintza berria aplikatu aurretik eta ondoren.
- Hiri-hondakin solidoen kudeaketa aztertuko da, beharrezko neurrien hartze maila kontuan izanik.
- Urbanizatu beharreko sektoreetako zona mugakideetan sortzen den interferentziari erreparatuko zaio.
- Urbanizazioaren eraginpean dauden eremuen egoera, eta horiek leheneratzeko lanen egoera hartuko da aintzat.
- Ateratako landare-lurra berriro erabiltzearen maila konputatuko da.
- Energia berriztagarriak erabiltzen dituzten eraikinen ehunekoari erreparatuko zaio, ZHAPOren aurretik eta ondoren.
- Osasunaren Munduko Erakundeak gomendatzen dituen zarata mailak gainditzen dituzten zaraten mende dauden herritarrak izango dira aintzat, ZHAPOren aurretik eta ondoren.

7. ZHAPO-REN ERAGINAK IKUSKATZEKO PROGRAMA

ZHAPO behin betiko onartzen duen erabaki administratiboan txertatutako neurri babesleen, zuzentzaileen eta konpentsatzaileen zaintza eta kontrola bere gain hartuko ditu ZHAPO behin betiko onartzeko organo eskudunak.

Programa horren helburua da ZHAPO zuzen aplikatzen den egiaztatzea eta inpaktua arintzeko eta zuzentzeko ezarritako neurriak aintzat hartu diren ziurtatzea. Era berean, ZHAPO abian jartzeak aurreikusitako ez eta bere egindakoez bestelako ingurumen-inpaktu esanguratsuak eragin dituen egiaztatu beharko da.

7.1. KONTROL HELBURUEN DEFINIZIOA

Hauek izan beharko lukete zaintza eta kontroleko programaren helburuak:

- ZHAPOren helburuak eta zehaztapenak betetzen direla bermatzea.
- Neurri zuzentzaileak betetzen direla bermatzea, eta eraginkortasunaren jarraipena egitea, emaitzak aurreikusitakoaz aldentzen badira beharrezko neurriak hartzeko.

Zarauzko Udalak, zuzenean, ingurumen arloan espezialista den teknikari baten bidez edo ingurumen-aholkularitza kualifikatu baten bidez egingo du ingurumen-kontrola.

7.2. JARRAIPENAREN MENDE DAUDEN SISTEMEN, ALDERDIEN EDO ALDAEREN IDENTIFIKAZIOA

Honako alderdiak, batik bat, kontrolatu beharko dira:

- Orokorrean, babes bereziko zona gisa kalifikatutako eremuetako balio naturalak mantentzea.
- Udalerriko erreken, ibilguen eta ur-bazterren egoera, eta, batez ere, urbanizazio-jardunen eraginpean dauden errekena.
- Araztu ondoren itsasora isurtzen diren uren ezaugarriak.
- Urbanizatu beharreko sektoreen okupazio maila.
- Aldatutako zonak leheneratzeko lanak, ateratako lurak berrerabiltzeko lanak eta egin beharreko landatze-lanak.
- Hiri-hondakin solidoen bilketa aurreikusten diren gehikuntzetara egokitzea.
- Kultura-ondarearen egoera.
- Orokorrean, kostari buruzko 22/1998 Legearen zehaztapenen betetze maila, itsas-lehorreko jabari publikoaren esparruan.
- Azterlan honetan ezarritako iraunkortasun-irizpideak txertatzea, aurreko kapituluan ezarritako adierazleen jarraipenaren bidez.

7.3. ADIERAZLEEN JARRAIPENERAKO BEHARREZKO DATU KUANTITATIBOAK ETA KUALITATIBOAK FINKATZEA

Jarraipena egiteko honako datuak gutxienez bildu beharko dira sistematikoki:

- Hiri-lurzoruko eta lurzoru urbanizagarriko azalera, ZHAPOren aurretik eta ondoren.
- Bizitegi-lurzoruko azalera, ZHAPOren aurretik eta ondoren.

- Ekonomia jardueretarako azalera, ZHAPOren aurretik eta ondoren.
- Berdeguneetarako eta espazio libreetarako lurzorua azalera, ZHAPOren aurretik eta ondoren, gaur egungo eta etorkizuneko populazioari dagokionez.
- Babestutako azalera (babes bereziko eremuak), ZHAPOren aurretik eta ondoren.
- Babes bereziko zonetan inpaktua eragiten duten jardun zehatzak.
- Erreketako uren kalitatearen narriadura, eta, hala badagokio, horren ahalezko kausen zehaztapena.
- Hondakin-uren poluitzaileen parametroen kontrola: DBO, DQO, solidoak esekiduran, nitratoak eta amoniako-nitrogenoa.
- Hobi septikoetako efluenten eta ibilguetarako isurketa baimenduen parametroen kontrola, eta jabari hidraulikoaren araudiari buruzko 1986ko apirilaren 30eko 849/1986 Errege Dekretuaren isurketei buruzko zehaztapenak eta horien ondorengo aldaketak bete diren bermea.
- Urbanizatu beharreko sektore bakoitzean leheneratu beharreko azaleren kuantifikazioa.
- Leheneratutako edo leheneratu beharreko azaleren kuantifikazioa.
- Sortutako hiri-hondakin solidoen mota bakoitzaren bolumena eta zonen arabera udalerrian kokatutako edukiontzien kopurua, ZHAPOren aurretik eta ondoren.
- Kultura-ondare arkeologikoaren eta arkitektonikoaren gaineko eraginak.

7.4. PARAMETRO KUANTIFIKATZAILEETARAKO ERREFERENTZIAZKO EDO MUGAKO MAILAK EZARTZEA

Berriazko legegintzako erregulazioaren mende dauden parametroen kasuan, aplikatzekoa den legerian aintzat hartzen diren mugako balioak hartu beharko dira aintzat.

Adierazleen jarraipena egiteko erreferentziazko datu kuantitatiboei eta kualitatiboei dagokienez, indarrean dagoen legeriak zehazten dituen datuez gain, adierazleetako bakoitza gaur egun zehazten dutenak hartuko dira kontuan. Horrela, sortzen ari den aldaketa ezagutu ahal izango da une oro, eta abiapuntuko balioetara leheneratzeko neurri egokiak ezarri ahal izango dira.

7.5. BETETZE MAILA IKUSKATZEKO, ZAINTEKO ETA INFORMATZEKO PROGRAMEN DISEINUA

Arauk idazteko prozesuan, Aurrerapen dokumentuari dagokion ingurumen-inpaktuaren aurretiazko txostena jaulki zen. Hasierako onespeneko dokumentua idaztean hartu zen kontuan txosten hori, eta dokumentu horretan, hain zuzen ere, oinarrituta idatzi da ZHAPO.

Behin betiko onartu aurretik, ingurumen-organo eskudunak ingurumen-inpaktuari buruzko behin betiko txostena jaulkiko du. 183/2003 Dekretuaren 14. artikulua zehazten duen bezalaxe, Plana behin betiko onartzeko eskumena duen organoak behin betiko txostena izan beharko du kontuan, eta ingurumen-alderdiak nola integratu diren laburbilduko duen deklarazio zehatza idatziko du. Gainera, proposatutako antolamendua zergatik hautatu den justifikatuko du.

ZHAPOk bi laurteko ezarri ditu aurreikusitako jardunak gauzatzeko. Lehen laurtekoan, alde zaharra birgaitzeko jardunak planteatzen dira, baita zabalduraren hiri-berrikuntza ere. Horrez gain, bizitegirako, ekonomia-jardueretarako eta zuzkidura publikoetarako lurzoruetan integratutako hainbat jardun planteatzen dira (horien artean dago Salberdin). Bigarren laurtekoan Hegoalde eta Tejeria birmoldatzeko jardunak planteatzen dira (saihesbidea gauzatzeko unean egin beharrekoa). Sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarriko jardunei, berriz, justifikazioko eta bideragarritasuneko azterlanek hala zehazten dutenean ekingo zaie. Ildo horretan, lurzoru urbanizagarrian edozein jarduni ekin aurretik, birmoldatzeko proposamenak benetan garatzen direla egiaztatu beharko da.

Proposatutako jardunek hainbat ingurumen-osagaitan eragina izango duten obrak egitea eskatuko duenez gero, Ingurumen Zaintzako Programa orokorra proposatzen da. Programa hori orokorra izanik ere, jardun bakoitzaren zehaztapenetara egokitu beharko da.

7.5.1. Eraikuntza fasea

Proposatutako sektoreen eraikuntza fasean, obraren ingurumen-kontrola egin beharko da, aholkularitza kualifikatu bidez edo teknikari espezialista bidez. Kontrol horrek dagokion proiektuan zehaztuko diren neurri babesleak eta zuzentzaileak betetzen direla bermatuko du. Obraren ingurumen-kontrola egiten denean, obra ikuskatzean egindako oharrak bilduko dituzten txostenak egin beharko dira noizean behin. Txosten horietan, hartutako neurri zuzentzaileak eta neurri horien emaitzak adieraziko dira, hauteman diren arazo berri emango da, eta abar. Era berean, obrak egitean izan diren gertakariak islatu beharko dira, hala nola isurketak eta emisioak. Obra amaitutakoan, obraren jarraipenaren azken txostena egin beharko da. Kontrol hauek egingo dira:

- **Okupazio-mugak:** eraginpean ez dagoen proiektuari dagokion okupazioa eta aurreikusten den azalerari dagokion okupazioa dela egiaztatuko da
- **Hondakin, emisio eta zarata mailak:** obrako makineria aldi berean behin ikuskatzen dela kontrolatuko da. Kontrol horren bidez, makineria behar bezala mantentzen dela ziurtatu nahi da, eta makineriak sortzen dituen emisioak eta zaratak indarrean dagoen legeriak onartutako mailen barruan daudela egiaztatu nahi da. Airearen poluzioa arintzeko neurriak betetzen direla kontrolatuko da. Obraren Ingurumen Zuzendaritzak zehaztuko du ureztatzeen premia eta ureztatze aldizkakotasuna.
- **Eraginpean dauden ibai-ibilguen uren kalitatea:** obrak gauzatzean, ibilguetara isurketarik ez egiteko arreta handiz ibiliko da. Halaber, lur-higiduren ondoren, higaduraren ondoriozko partikulak errestatzea kontrolatu beharko da. Horretarako, uren kalitatea aztertuko da, eta, hala, uraren laginketa fisikoak, kimikoak eta biologikoak egingo dira. Laginketa fisikoak eta kimikoak bi hilean behin egingo dira, eta laginketa biologikoak sei hilean behin. Aurretiazko laginketari esker finkatuko dugu jardunarekin hasi aurreko uren kalitatearen egoera zein den, eta ondorengo faseetan lortzen diren emaitzekin alderatzeko baliagarria izango zaigu. Laginketak obratik uretan gora zein uretan behera egingo dira. Honako parametroak neurtuko dira: tenperatura, pH, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, olioak eta koipeak, esekiduran dauden solidoak, amonioa, DQO eta indize biotikoak. Intentsitate handiko euriteen ondoren laginketa osagarriak egingo dira, obraren ondorioz gaineratzen diren esekidurako solidoen kopurua zehazteko, eta bidezko neurri zuzentzaileak finkatzeko. Obraren Ingurumen Zuzendaritzak laginketetan lortutako emaitzak ez ezik, laginketak egitean hautemandako gertakariak ere jaso beharko ditu txostenetan.
- **Poluituta egon daitezkeen lurzorua:** 6. idatz-zatian proposatutako arlo horretako neurriak betetzen direla egiaztatuko da. Lurzorua kalitateari buruzko azterlanaren arabera finkatuko da hondakinen tratamendu egokia, organo eskudunaren irizpideen arabera.
- **Sarbideen kontrola:** obraren parte hartzen duten ibilguak eta makinek aurretik dauden sarbideak erabiltzen dituztela kontrolatuko da. Obrei hasiera eman aurretik zehaztuko dira obretarako sarbideak, eta beste sarbide batzuk sortzea saihestuko da. Beste sarbide batzuk zabaltzea beharrezkoa izanez gero, lurrera ahalik eta gehien egoki daitezen saiaturiko da, malda handiegiko ezpondak saihestearren.
- **Lur-higidurak:** topografia birmoldatzen joko duten jardunak topografia naturalera ahalik eta gehien egokitzen direla egiaztatuko da: ezpondak biribilduko dira, oin-planoan zein

aurretiko bistan; ertzak eta lurrazal lauak saihestuko dira; eta abar. Emaitzazko ezponden maila egiaztatuko da, bertako landaredia birsortzeko aukera bermatuko bada.

- **Ingurumena eta paisaia leheneratzeko proiektuaren kontrola eta jarraipena:** leheneratzeko planen jarraipena egingo da. Aldi horretan egin diren jardunak eta bidezko beste alderdi batzuk islatuko dituzten hileko txostenak ere egingo dira. Halaber, obra-unitate bakoitzerako berariazko fitxak beteko dira, eta fitxa horietan obra-unitate horiek gauzatzeko alderdi guztiak jasoko dira: espezieak, ale kopurua eta abar. Obraren Ingurumen Zuzendaritzak landatzeetan erabiliko diren aleak ikuskatuko ditu, eta zuloak prestatzeko lanak, landatze-lanak eta neurketak gainbegiratuko ditu. Ezarritako berme-aldi osoan egingo dira landaredia mantentzeko lanak, eta beharrezko lurrazaletan belarra ereingo da berriro.
- **Obra-instalazioen, langileen eta bide osagarrien kontrola:** obrak amaitutakoan, pistak, sarbideak, makineria-parkea eta abar leheneratu beharko dira. Obraren Ingurumen Zuzendaritzak obraren inguruan garbiketa orokorra egiten dela eta obraren aztarnak eta abar desagerrarazten direla bermatu beharko du.

7.5.2. Funtzionamendu fasea

Berme-aldiaren ondoren, lorezaintza eta leheneratze arloko lanak egitea eta mantentze-lanak egitea proposatzen da fase honetarako. Horrela, ingurumena eta paisaia leheneratzeko planen bidez –eta, batez ere mantentze handiagoa eskatzen duten zonen leheneratzearen bidez (hegoalderantz jotzen duten ezpondak, eta abar)– lortzen diren emaitzen jarraipena egin daiteke. Era berean, marrak birjartzeko edo berriro ereiteko egindako ereiteen eta landatutako aleen egoera egiaztatuko da.

7.6. PLANGINTZA PROZESUAREN ONDORENGO FASEETAN EDO GARAPEN DOKUMENTUETAKO INGURUMEN INPAKTUKO EBALUAZIOETAN XEHETASUNEZ AZTERTU BEHAR DIREN ALDERDIAK

Proposamenak garatzeko plangintzarako idatzi behar diren Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioari buruzko Azterlanetan aztertu beharko dira zehatz-mehatz jardun horiek (sektORIZAZIO-planak, plan bereziak, plan partzialak, trenbide lurperatzeko proiektua, saihesbidea, eta abar).

8.- DOKUMENTAZIO GRAFIKO ZUZENDUA

2005eko abuztuko ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlaneko honako planoak aldatu dira:

3. plano. AUKEREN KOKALEKUA (1/10.000 eskala)

4. plano. INPAKTUEN KOKALEKUA (1/10.000 eskala)

5. plano. ZONABANATZEARI DAGOZKION NEURRI ZUZENTZAILEAK
(1/10.000 eskala)